

**7/2021 TXOSTENA, OTSAILAREN 25EKOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA.****XEDEA: GOBERNU-KONTSEILUAREN ERABAKI-PROPOSAMENA,
EUSKO JAURLARITZAN HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO
IRIZPIDEEI BURUZKOA.****I.- AURREKARIAK**

2021eko otsailaren 10ean, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak txostena eskatu zuen, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei buruz Gobernu Kontseiluak egindako erabaki-proposamenaren harira.

Espediente hori Tramitaguneraren bidez izapidetu zen —prozedurak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoa—, AAAA_ACG_1407/21_11 erreferentzia-zenbakiarekin, eta dokumentu hauek biltzen ditu:

- Justifikazio-memoria
- Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenaren testua
- Irizpideen zirriborroa, euskaraz eta gaztelaniaz
- Aholku Batzordeari zuzendutako eskabidea. Ez da zehazten zer eskatzen den, ordea; "ez da txosten juridikorik behar" dio bakarrik.

Adierazi behar da memoriak, proposamenak eta eskabideak ez dutela sinadurarik, eta lehenengo biek datarik ere ez dutela.

Bestalde, ez dago jasota sailaren txosten juridikorik, zeina nahitaezkoa baita Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7. artikuluko 3. apartatuaren arabera —3. artikuluko 3. apartatuarekin lotua—. Txosten hori eskatu zaio hura egiteko eskumena duen zerbitzuari, baina zerbitzu horren esanetan ez dagokio txostenik egitea, haren ustez jarraibideok ez dutelako balio xedapen orokor bakar baten aplikazioa ere errazteko. Proposatutakoa Gobernu Kontseiluaren erabaki bat izanik, are nahitaezkoagoa da txosten juridikoa egitea.



II.- ESKUMENA

Txosten hau nahitaezkoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikuluko a) letraren 7. apartatuan eta artikuluko b) letraren lehen gidoian ezarritakoaren arabera. Izan ere, txosten honen xede den Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenak biltzen dituen jarraibideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organo batek emanak dira, kontratazio publikoan eragiten duen batek, hain zuzen, besteak beste administrazio horretan jarraitu beharreko hizkuntza-irizpideak ezartzen ditu-eta.

Kontuan hartuta, batetik, aipatutako lehen apartatuaren gaineko eskumena Batzorde Iraunkorarena dela, eta bigarrena, berriz, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Osoko Bilkurarena, eta bestetik, 116/2016 Dekretuaren 30. artikulurekin bat Osoko Bilkurari aurkez dakizkiokeela Batzorde Iraunkorreko lehendakaritzaren ustez batzorde horrek aztertu ondoren Osoko Bilkurari aurkeztu beharrekoak diren gaiak, Osoko Bilkurak izango du txostena eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onartzeko eskumena. Are gehiago, edukiak osoko bilkura horretan dauden kontratazio-organo eta -arlotzuei eragiten die zuzenean.

III.- EDUKIA

Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenean Eusko Jaurlaritzan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak aipatzen dira, baina ez da adierazten eranskin gisa jaso ote diren, proposamenaren testuan ez delako horien berri ematen. Gure ustez, zehaztu egin beharko litzateke hori horrela ote den.

Bestalde, eta aplikazio-eremua "Eusko Jaurlaritzako sailak eta organismo autonomoak eta horien mendeko sozietate publikoak" denez, uste dugu izenburua aldatu beharko litzatekeela, tartean diren eragile publikoak zein diren argiago adierazteko. Nolanahi ere, beste erakunde batzuen eta herritarren eskubideak eta betebeharrak aitortzen direnez, beharbada hizkuntza ofizialak "non" baino "nork" erabiltzen dituen adierazi beharko litzateke izenburuan. Azkenik, beharbada, egokiena izango litzateke Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa izatea aplikazio-eremua (Hitzaurrea), Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 7. artikuluko jasotakoarekin bat.

Irizpideei berei erreparatuta, aurkibidearen arabera, alderdi orokor hauetan banatzen dira:



- Sarrera
- 1. Irudi instituzionala
- 2. Herritarrekiko komunikazioak
- 3. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak
- 4. Langileen kudeaketa
- 5. Kanpo-komunikazioa
- 6. Kudeaketa-sistema

Hala ere, azpimarratu behar da sarreraren ondoko edukia honela banatzen dela:

- I. ardatza: Zerbitzu-hizkuntza (aurkibidean adierazitako irudi instituzionalari eta herritarrekiko komunikazioei buruzko atalak)
- II. ardatza: Lan-hizkuntza (aurkibidean adierazitako gainerako atalak)

Kontratazioari buruz landu diren alderdiak 1.2.1, 1.2, 3.4.1 eta 6.2.1.2 puntuetan ageri dira; bi ardatzetan, beraz. Hala ere, gure ustez, lizitatzailerak eta kontratistekiko harremanei buruzko alderdiak, nagusiki, I. ardatzean egon beharko lirateke jasota, baina kanpo-komunikazioak izango dira gehien-gehienak. Hausnarketa hutserako aipatzen dugu hori.

Hona hemen, beraz, kontratazioari buruzko edukia:

"1.2.1.1. Argitalpenak

Oro har, Eusko Jaurlaritzaren argitalpenak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira, baina horietako batzuk euskara hutsean argitaratu ahal izango dira, baldin eta haien helburua euskara sustatzea bada.

Argitalpenak bi hizkuntza ofizialetan ez ezik beste hizkuntza batzuetan argitaratu behar izanez gero, ordena honi jarraituko zaio: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta beste batzuk.

1.2.1.2. Publizitatea

Oro har, publizitatea bi hizkuntza ofizialetan zabalduko da, eta, kopuruari dagokionez, euskaraz, gutxienez, gaztelaniaren presentzia bera izango du.

Publizitate-kanpainak kontratatzen direnean, bereziki zainduko da euskarazko esloganak euskaraz sortuak izatea, eta ez izatea gaztelaniazko esloganen itzulpen hutsak. Betekizun hori espresuki jasoko da kontratazio-agirien klausuletan.

Informazio- eta dibulgazio-liburuxkak, kartelak, oharrak eta bestelako argitalpenak, dauden euskarrietan daudela ere, euskara hutsean idatzi eta zabalduko dira, baldin eta euskararen erabilera sustatzearekin eta normalizatzearekin zerikusia badute.



" 3.4.1. Euskarazko bertsioak instalatzea

Eusko Jaurlaritzan erabil dadin berariaz sortutako softwarea euskaraz erabiltzeko aukera egon beharko du, hargatik eragotzi gabe gaztelaniaz ere erabili ahal izatea.

Software berriren bat garatzen denean, ele bietan egiteko eskatuko zaio hornitzaileari. Kontratazio-agiriekin baldintza hau jasoko dute: hornitzaileak bere produktuak ele bietan sortzeko gaitasuna izatea.

Eusko Jaurlaritzaren aplikazio eta webguneen hizkuntza lehenetsia euskara izango da, eta gaztelaniaz edo beste hizkuntza batzuetan jartzea aukeratu ahal izango da. Irizpide bera aplikatuko da intranetean, web-orrietan eta aplikazioetan ere.

Programa, aplikazio, datu-base edo tresnen euskarazko bertsioa instalatuko zaie 2. HE edo hortik gorako euskara-maila dutela egiaztatu duten langileei. Sistema eragileen migrazio bakoitza aprobetxatuko da langile guztiei dagozkien euskarazko bertsioak instalatzeko. Software estandarra instalatzeko eskaerarik egin bada, haren euskarazko bertsiorik dagoen aztertuko da, eta, horrela bada, hura instalatuko da".

" 6.2.1.2. Kontratu publikoak

Eusko Jaurlaritzako sailek eta organismo autonomoek eta horien mendeko sozietate publikoek sinatutako kontratuaren, kasuan-kasuan beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, alde batetik, herritarrei bermatzeko kontratuaren xede diren jardura edo zerbitzuetarako irispidea izango dutela erakundeei eskatzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan, eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunari buruzko araudia betetzeko.

Administrazio-baldintza partikularren agiriak eta preskripzio teknikoaren agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira.

Eusko Jaurlaritzako sailek eta organismo autonomoek eta horien mendeko sozietate publikoek hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea betearaziko dute beren kontratu publikoetan. Beraz, kontratuaren xedearen arabera, administrazio-klausula partikularren agirian ezarriko da kasu bakoitzean zein hizkuntza-baldintza exijitu behar diren.

Eusko Jaurlaritzako sailek eta organismoek eta horien mendeko sozietate publikoek bermatuko dute kontratuaren xedeak betetzen duela kontratuaren izaeraren eta zerbitzuaren titularra den erakundearen ezaugarrien arabera aplikagarri zaion hizkuntza-legeria.

Hizkuntza-ofizialtasun bikoitzari lotutako errekerimenduak kontratu bakoitza betearazteko baldintzen mende egongo dira, eta hauxe bermatu beharko dute:

- a) Herritar bakoitza aukeratzen duen hizkuntza ofizialean artatzea.
- b) Zerbitzuaren titularra den administrazioari exijitu dakizkiokeen hizkuntza-baldintza berberetan ematea zerbitzua.

Kontratua betearazteko hizkuntza-baldintzak zehaztean, honako printzipio hauek hartuko dira oinarritzat:

- a) Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko da, kasu bakoitzaren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.
- b) Hizkuntza-baldintzak kontratuaren bidez bete beharreko eginkizunen arabera izango dira.
- c) Enpresak bere baliabideen bidez edo besteren baliabideen bidez bermatu ahal izango du hizkuntza-baldintza horiek betetzen direla.



Kontratua betearazteko baldintzetan, entitate kontratatzailearen eta enpresa esleipendunaren arteko komunikazioetan erabiliko den hizkuntzari buruzko araudia jasoko da.

Herritarrekin harreman zuzena izatea eskatzen duten kontratuetan, honako manu hauek betetzen direla bermatuko da:

a) Zerbitzua ematean, enpresa esleipendunak Eusko Jaurlaritzako sailen, organismo autonomoen eta sozietate publikoen hizkuntza-araudia bete beharko du, baita araudi horretan kasuan kasuko jarduerari edo prestazioari dagokionez ezarritako hizkuntza erabiltzeko irizpideak ere. Zehazki, bi hizkuntza ofizialetan gaitasuna duten pertsonak jarri beharko dira administrazioko lanpostuetan. Alderdi hori kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian jasoko da. Enpresak egiaztatu beharko du administrazioko lanpostuetan badaudela aipatutako gaitasuna duten pertsonak.

b) Zerbitzua ematean, enpresa esleipendunak ahalegindu beharko du herritarrekiko ahozko komunikazioetan euskara erabiltzen. Horretarako, enpresa esleipendunaren administrazioan diharduten langileek euskaraz egingo dute lehen hitza, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko dute. Enpresa esleipendunak zerbitzuaren erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan idatziko ditu zerbitzua emateko behar diren ziurtagiriak, txartelak, oharrak eta bestelako idazkiak.

Hizkuntza-baldintzen betetze-mailaren jarraipena egitea kontratazio-organoari dagokio. Hizkuntza-baldintzak betetzen ez badira, araudiak kontratua ez betetzeari buruz dioena aplikatuko da.

Eusko Jaurlaritzako sailek eta organismo autonomoek eta horien mendeko sozietate publikoek erabaki ahal izango dute hirugarrenei eskatzen zaizkien antzeko azterketa, proiektu eta lanak gutxienez euskaraz idatzita egotea, salbu eta, lortu nahi den helburua kontuan hartuta, nahitaez gaztelaniaz idatzi behar badira. Betekizun horrek jasota egon beharko du onartzen diren administrazio-kontratuen baldintzen agirietan”.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak (9/2017, azaroaren 8koa; aurrerantzean, SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, honako hau dio 1. artikuluan 3. apartatuan:

“Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean [...]”. Hausnartu beharra dago hizkuntza-irizpideak sozialtzat hartu ote daitezkeen, 145. eta 202. artikuluetan “sozial”tzat hartzen denaren arabera.

76. artikuluan, zeina ez baita oinarrizkoa, aipatzen da kontratazio-organoak aukera duela giza baliabide eta baliabide material jakin batzuk kontratu baten betearazpenari atxikitzea eskatzeko. Aukera hori betebeharrak bihurtuko da “daukaten zailtasun teknikoa dela-eta kontratua egikaritzeko behar diren bitarteko pertsonalak edo materialak zehaztea erabakigarria den kontratuen kasuan”. Nolanahi ere, aipatutako artikuluan 3. apartatuak atxikipen hori mugatzen du:



“Kontratastaren sailkapenerako kaudimen-baldintza gehigarri moduan bitarteko pertsonal edo materialak atxikitzea zentzuz, justifikatuta eta entitatearekiko eta kontratuaren izaerarekiko eta ezaugarriekiko modu proportzionalan egingo da, halako moduz non ez duen mugatuko enpresek lizitazioan parte har dezatela”.

86. artikulua 1. apartatuak honako hau ezartzen du: “Kontratu baterako ekonomia- edo finantza- kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko, kontratazio-organoak lege honen 87. artikulutik 91. artikulura aurreikusitako dokumentuen artean zehaztutakoak aurkeztu beharko dira”. Artikulu horiek guztiak oinarritzakoak dira, eta horietan ez dira aipatzen kontratatu ahal izateko bete behar diren hizkuntza-gaitasunei buruzko baldintzak.

SPKLk honako hau dio 122. artikulua 2. apartatuan: “Administrazio-klausula partikularren agirian, honako hauek jasoko dira: kontratuaren kaudimen- eta adjudikazio-irizpideak; kaudimen-irizpide eta adjudikazio-irizpide moduan edo egikaritzeko baldintza berezi moduan ezartzen diren gizarte-baldintzak, lan-baldintzak eta ingurumen-baldintzak; [...]”.

125. eta 126. artikuluetan, preskripzio teknikoari eta horiek ezartzeko arauak buruzkoetan, ezartzen da preskripzio teknikoetan kontratuaren gizarte-eragin, terminologia, ontziratze, markatze, etiketatze eta abarren berri eman daitekeela, nazioarteko, Europako eta Estatuaren arabera; horretarako, “betiere, kontratuaren objektuari lotuta egon beharko dute eta proportzionalak izan beharko dute haren balioarekiko edo helburuekiko”.

145. artikulua kontratuak adjudikatze irizpideei buruzkoa da. Irizpide horiek kalitate-prezio edo kostu-eraginkortasun erlazio onenean oinarrituko dira, eta “ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak jaso ahalko dituzte, kontratuaren objektuari lotutakoak, artikulua honen 6. apartatuan ezarritako moduan; honako hauek izan ahalko dira, besteak beste: [...] ezaugarri sozialak [...]: [...] desgaitasuna duten pertsonen edo gizarte-bazterketaren egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea [...], genero-berdintasuneko planak [...], lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea [...], enpleguaren egonkortasuna [...]”. Hau da, badirudi izaera sozialak lan-arloko alderdiak barne hartzen dituela, eta, hala badagokio, baita berdintasun-arlokoak ere.

Aurrerago, alabaina, adjudikazio-irizpidetzat onartzen da “kontratua egikaritu behar duten eta hari atxikita dauden langileen antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia, baldin eta langile horien kalitateak eragin nabarmena izan badezake hobeki egikaritzeko”.



Azkenik, 145. artikuluko 6. apartatuan kontratuaren xedearekiko lotura zer den azaltzen da: "eman behar diren prestazioei dagokienean edo haiek integratzen dituenean". Beraz, hizkuntza-baldintza jakin batzuk baloratzen badira, prestazioa ematean horiek betetzen diren egiaztatzeko modua egon beharko da, eta hori ez da beti posible izaten, batzuetan ez baita egoten egiaztatzeko moduko ahozko edo idatzizko alderdirik.

Planteamendu sozialen ildotik, 201. eta 202. artikuluek (lehenengo eta behin) indarrean dauden Estatuko, Europako eta nazioarteko zuzenbideko xedapenak betetzeko betebeharra ezartzen dute, eta (bigarrenik) aukera ematen dute "izaera sozial, etiko edo ingurumenekoa duten kontratuak edo bestelako izaera duten kontratuak" betearazteko baldintza bereziak ezartzeko, kontratuaren xedeari lotutakoak. 202. artikulua 2. paragrafoak zertxobait gehiago mugatzen du: "Exekuzio-baldintza horiek, bereziki, kontsiderazio ekonomikoei buruzkoak, berrikuntzari edo ingurumenari lotuak edo kontsiderazio sozialei buruzkoak izan ahalko dira". Eta apartatu horretako hirugarren paragrafoan zehazten diren kontsiderazio "sozialen nahiz enpleguari buruzko"en artean, badira zenbait, zerrenda itxia ez bada ere, prestazioa ematen duten pertsonen gizarte- eta lan-eremuarekin soilik zerikusia dutenak. Hau da, ez dira hizkuntza-baldintzak aipatzen, baina ez dirudi "bestelako" baldintzei buruzko tartekian horiek kontuan hartzea eragozten denik.

Hala ere, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiari zuzenean galdetu zioten hizkuntza arloko exekuzio-baldintza bereziak txertatzeko aukeraz (kasu honetan, katalanaren erabilerari buruzkoak), eta uztailaren 31ko 897/2019 Ebazpenean ebatzi zuen gai hori:

"Ikus dezakegunez, jasotako testuetan honako exekuzio-baldintza berezi hauek baino ez dira aipatzen eta onartzen: kontsiderazio ekonomikoak edo berrikuntzarekin zerikusia dutenak, ingurumenekoak, sozialak edo enpleguari lotutakoak. Hau da, ekonomia iraunkorraren arlokoak.

[...]

Bada, ez dira exekuzio-baldintza berezi horietan sartzen oro har aplikatzekoak diren legezko betebeharrak eta betekizunak, zeinak dagokion legezko araudiak ezarriak eta derrigorrezko edo nahitaezkoak baitira; horiek beti bete beharrekoak dira, baina horrek ez ditu bihurtzen exekuzio-baldintza berezi. Horrexegatik, eta kontuan hartuta, gainera, ez daudela lotuta aipatutako gaiekin edo eremuekin (ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak edo berrikuntzakoak), kontratuan ezin dira exekuzio-baldintza berezitat ezarri beste eremu batzuetako betekizunak edo kontsiderazioak,



ezta aipatutako eremuetan sartzen ez diren beste gai batzuk arautzen dituzten arauak ere.

[...]

Egia da balizko exekuzio-baldintzen zerrenda, baita adjudikazio-irizpide kualitatiboena ere, generikoa dela, eta azalpen hutsa ematea duela helburu, eta, beraz, horretarako ezarritako baldintza orokorrak betetzen dituzten antzeko beste baldintza edo irizpide 'sozial' batzuk ere ezar daitezkeela. Hala ere, ezarritako esparru orokorrak beti aipatzen ditu 'kontsiderazio ekonomikoak edo berrikuntzarekin zerikusia dutenak, ingurumenekoak, sozialak edo enpleguari lotutakoak', eta horrek zera ondorioztatzen garamatza: Europako araudiak eta araudi nazionalak ez dutela aurreikusten, eta, beraz, ez dutela ahalbidetzen, kontratazio publikoaren barruan, aipatutako zuzentarauaren 70. artikuluan aipatutakoez bestelako gaiari edo eremuei buruzko exekuzio-baldintza bereziak ezartzea, ezta hizkuntza bat edo bestea erabiltzea ere, baina, jakina, horrek ez du esan nahi kontratuaren esleipenduna ez dagoenik behartuta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen hizkuntza-araudia errespetatzera eta betetzera".

Hori guztia argi eta garbi jaso eta azaldu da berriz ere Auzitegi beraren apirilaren 23ko 563/2020 Ebazpenean.

Hau da, hizkuntzari buruzko exekuzio-baldintza bereziak ezartzeko aukera ukatzen da, baina horrek ez du eragozten hizkuntza horri buruz indarrean dagoen araudia bete behar izatea, eta hura errespetatu beharko da preskripzio tekniko, plegu eta abarretan.

Esparru horretaz ari garela, ezin da ahaztu Gobernu Kontseiluaren 2016ko apirilaren 26ko Erabakia, zeinaren bidez onartu baitziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak egiten duen sektore publikoko kontratuen legeriaren esparruko kontratazioan euskararen erabilera eta ezagutza txertatzeko printzipio orokorrak ezartzen dituzten jarraibideak. Jarraibide horiek zehaztu egin behar dira, adierazitako zentzuan, hau da, kaudimenari dagokionez —SPKLk mugatu zuen, gorago adierazi dugunez geroagokoa da-eta (2017)— eta exekuzio-baldintza bereziei dagokienez. Halaber, erabaki hori eguneratu beharko litzateke, haren arauzko erreferentziak indargabetuta daude-eta, eta, agian, erabaki-proposamen berri honek eman dezake horretarako aukera.

Hori guztia aztertuta, badirudi Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamen hau egokia dela eta zentzuzko irizpideetan oinarritzen dela, baina ñabardura txiki batzuk egin behar dira:



- "Administrazio-baldintza partikularren agiria" izena ez da zuzena, eta horren ordez "administrazio-klausula partikularren agiria" erabili behar da.
- Ikusi dugunez, proposamenak biltzen dituen "kontratuaren exekuzio-baldintzak" hartu behar dira preskripzio teknikotzat (baita batzorde honek egin dituen eruedetako pleguen administrazio-klausula partikularretan berez jasotakoak ere); izan ere, ikusi dugunez, kontratuaren exekuzio-baldintza berezien atalean ezin da hizkuntza-klausularik ezarri.
- "Hizkuntza-ofizialtasun bikoitzarekin lotutako errekerimenduetan... honako hau bermatu beharko da: [...]" zehaztu egin beharko litzateke herritarrei arreta ematea eskatzen duten kontratuetan edo zerbitzu bat ematea helburu duten kontratuetan, hurrenez hurren.
- Behin baino gehiagotan aipatzen da enpresa "esleipenduna", baina "kontratista" behar luke; izan ere, esleipendun guztiak ez dira azkenean kontratista bihurtzen, eta testua betearazpenaren inguruabarrei buruzkoa da, beraz kontratistaz aritzea dagokio.
- 6.2.1.2 apartatuko hirugarren a) letrak dio enpresak bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitasuna duten pertsonak jarri beharko dituela administrazioko lanpostuetan. Prestazioaren emaitzak egon behar du adierazitako hizkuntzetan; enpresaren antolamenduan ez da sartu behar, ordea.
- Hizkuntza-baldintzen betetze-mailaren jarraipenari dagokionez, kontratazio-organoa aipatzean, honako hau gehitu beharko litzateke: "hark izendatutako kontratuaren arduradunaren figuraren bitartez". Ez-betetzeak kasuan kasuko kontratuaren agirian zehaztutako ondorioak aplikatzea ekarri beharko luke.

Azaldutakoagatik, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei buruzko Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenaren **ALDEKO TXOSTENA** ematen da; horretarako, aldez aurretik, haren edukia txosten honetan eman diren jarraibide eta gomendioetara egokituko da, eta bereziki erreparatuko zaio kaudimenaren, exekuzio-baldintza berezien eta 2016ko erabakiaren berrikuspenaren inguruan adierazitakoari.